



Espediente zbk: 2026IERR0002

EBAZPEN PROPOSAMENA

Gaia: Gazteentzako alokairu laguntzen araudia aldatzea


LEHENA.- Eranskinean jasotako araudiaren aldaketak onartzea.

BIGARRENA.- Hartzen den erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal honetako iragarki-oholean argitaratzea, herritarrek egoki iritzitako erreklamazioak eta/edo iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten, 30 egun balioduneko epean, Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera (49 TAOAL).

HIRUGARRENA.- Aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunei buruzko txostena egitea Idazkariak, eta Osoko Bilkurari aurkeztuko dio dagokion baieztapen- edo ezeztapen-proposamena eta Ordenantza behin betiko onartzeko proposamena.

LAUGARRENA.- Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, Ordenantza behin betiko onartutzat joko da eta, horretarako, Alkatezak prozedura amaitzeko eta indarrean jartzeko beharrezkoak diren izapideak egingo ditu.

BOSGARRENA.- Behin betiko onespeneren erabakia edo, hala badagokio, kategoria horretara automatikoki eramandako hasierako onespeneren erabakia, Ordenantzaren testu bateratuarekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (edo, hala badagokio, probintzia bakarreko Autonomia Erkidegoko Aldizkarian) argitaratzea.

Sinatzailea:	Idazkaria-Kontuhartzailea Maria Zendegi Zelaia
Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo Interneteko orrialde honetara: https://munigex.net/r/0/39/AAAAB7EXM.GV0R	



Espediente zbk: 2026IERR0002

ERANSKINA

LEHENA.- Gaztelagun: koordinazio-araubidea argitzea (1.artikulua: Helburu zehatza)

NON DIO:

Eusko Jaurlaritzak urtero onartzen dituen alokairurako laguntzak, Gaztelagun, udal laguntza hauek baino lehentasun handiagoa izango dute.

Beraz, Getariako Udalaren laguntzaren eskatzaileak derrigorrez eta lehentasun izaerarekin (udal laguntzaren eskaera egin aurretik, hain zuzen ere) tramitatuta izan beharko du Gaztelagunen laguntza, eta hura ez badu lortzen bakarrik izango du udal laguntza hau jasotzeko eskubidea. Gaztelagunen laguntza (<https://labur.eus/xaAJe>) derrigorrez tramitatu behar hori salbuetsita egongo da, hain zuzen ere, udal laguntzen organo kudeatzaileak izaera objektiboz zehazten baldin badu eskatzaileak ez lituzkeela beteko inolaz ere, Eusko Jaurlaritzaren laguntzen oinarriak. Irizpide bera mantenduko da etxebizitza laguntza osagarrien kasuan (Lanbide) eta Eskubide Subjektiboko Prestazioaren kasuan ere.

HONELA DIO (proposatutako testua):

Eusko Jaurlaritzak urtero onartzen dituen Gaztelagun, eta Emantzipa laguntzak derrigorrezkoak eta lehentasunezkoak izango dira, eta beraz, udal laguntza hauek subsidiarioak izango dira eta, behar denean, osagarria izan daiteke.

Getariako Udalaren laguntzaren eskatzaileak derrigorrez eta lehentasun izaerarekin tramitatuta izan beharko ditu Gaztelagun eta Emantziparen laguntzak (betiere horien baldintzak betez gero), betiere horien baturak ez badu gainditzen egiaztatutako hileko errentaren % 75 eta oinarri hauek ezarritako gehieneko mugak.

BIGARRENA.- Errolda: 5 urteko baldintza zurruna malgutzea (4.artikulua. Herritar onuradunak)



GETARIA
UDALA



Getaria Herria
itsaso

Espediente zbk: 2026IERR0002

NON DIO:

Gutxienez Familia Unitateko pertsona bat Getariako herrian erroldatua egon izana, gutxienez 5 urtetan, eskaera aurkezteko unean.

HONELA DIO (proposatutako testua):

Gutxienez Familia Unitateko pertsona bat Getariako herrian erroldatua egon izana, gutxienez azken 3 urtetan eskaera aurkezteko unetik.

HIRUGARRENA.- Diru-sarrerak: mugak igotzea eta tarteak eguneratzea (4.artikulua. Herritar onuradunak)

NON DIO:

— Familia-unitatea osatzen duten pertsona guztiek batera diru-sarreraren muga, hauek baino txikiagoa izatea: 28.000,00 euro gordin urtean (eskataile bakarra bada). 35.000,00 euro gordin urtean (bi eskataile edo gehiago badira familia-unitatea osatzen duten pertsona guztiak).

HONELA DIO (proposatutako testua):

— Familia-unitatea osatzen duten pertsona guztiek batera diru-sarreraren muga, hauek baino txikiagoa izatea: 32.000,00 euro gordin urtean (eskataile bakarra bada). 46.463,29 euro gordin urtean (bi eskataile edo gehiago badira familia-unitatea osatzen duten pertsona guztiak).

LAUGARRENA. Tarte berriak (4.artikulua. Herritar onuradunak)

NON DIO:

€ gordin urtean:



GETARIA
UDALA



Getaria Herria
itsaso

Espediente zbk: 2026IERR0002

0-15.000 euro: %75; 15.000,01-21.000: %55; 21.001-28.000: %35; 28.000-35.000: %20.”

HONELA DIO (proposatutako testua):

€ gordin urtean:

a) Eskatzaile bakarra (32.000 euro arte): - 0 – 18.000 euro: %75 - 18.000,01 – 25.000 euro: %55 - 25.000,01 – 32.000 euro: %35 B) Bi edo gehiago (45.000 euro arte): - 0 – 18.000 euro: %75 - 18.000,01 – 26.000 euro: %55 - 26.000,01 – 35.000 euro: %35 - 35.000,01 – 46.463,29 euro: %20.

BOSGARRENA. Zenbatekoa: muga eguneratzea eta pisu partekatuan prorratea zuzentzea (8.artikulua. Laguntzen zenbatekoa eta laguntza ematearen prozedura)

NON DIO:

Diru-laguntzaren zenbatekoa hileko alokairu prezioaren % 75 izango da, gehienez hilean 250 euroko laguntza eskaera bakoitzeko eta gehienez 12 hilabeteko epealdi batetarako.

HONELA DIO (proposatutako testua):

Diru-laguntzaren zenbatekoa hileko alokairu prezioaren % 75 izango da, gehienez hilean 300,00 euroko laguntza eskaera bakoitzeko eta gehienez ere 12 hilabeteko epealdian.

SEIGARRENA. Pisu partekatuak (11. Diru-laguntzaren ordainketa)

NON DIO:

Alokairu partekatua denean, kontratuan ez bada zehazten zenbat ordainduko duen pertsona bakoitzak, bakoitzari emateko laguntza kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean. Beste era batera izango balitz, zinpeko adierazpen bat sinatu beharko dute kontratuaren titular guztiek adierazteko bakoitzak zenbat ordainduko duen, eta kopuru horrek bat egin beharko du justifikatzeko ekarriko duen ordainagiriarekin.



GETARIA
UDALA



Getaria Herria
itsaso

Espediente zbk: 2026IERR0002

HONELA DIO (proposatutako testua):

Familia-unitatea osatzen ez duten pertsonak etxebizitza partekatzen badute, laguntza eskatzaile bakoitzari dagokion hileko errentaren gainean kalkulatu da, kontratuaren, nominaren, lan bizitzaren eta ordainketaren banku-justifikazioen bidez egiaztatuta. Kasu honetan, gehieneko muga 300 euro/hilean izango da etxebizitza bakoitzeko; betiere %75eko mugari eta aurrekontu-kredituei kalterik egin gabe.

ZAZPIGARRENA.- Bateragarritasuna (12.artikulua. Beste diru-laguntzekin bateragarritasuna)

Esaldi hau kenduko da: —Epe berdinatik Eusko Jaurlaritzako Gaztelagun diru-laguntza jasotzea dagokienak.